

GUIARRA (AVANZADO)

Jarduera

Hari-instrumentu honetan sakontzea, melodia desberdinak ikasiz eta praktikan jarritz.

Deskribapena

Gitarra kurtso bat, erdi mailatik aurrera sakontzeko. Hari-instrumentu honen ezaugarriak eta jotzeko teknikak ezagutu ondoren, zailtasun handiagoa duten melodiak ikasi eta landuko ditugu ikastaro honetan, besteak beste.

Helburuak

- Ikaslearen musikarekiko interesa piztea.
- Gitarraren teknikan sakonduz ondo pasatzea aurrerapen pertsonalarekin.
- Kurtsoa bukatzean ikasleek erreminta asko edukitzea haien kabuz gehiago sakontzeko.
- Euskal kulturaren parte den bertako musika lantzea.
- Ikasle bakoitzak bere erritmoan jarraitzea.

Programa

1. Hiruhilekoa

- Solfeo minimo bat ikastea kurtsoan zehar kontzeptuak ulertzeko. Tablaturak eta musika idazteko modu ezberdinak irakurtzen ikastea. Akordeen izenak ulertzea.
- Melodiak jotzen ikastea.
- Akorde bereziagoak aurkeztea, eta aurretik ikasiak errepasatzea.
- Postura egokiak lantzea teknika ona edukitzeko.

2. Hiruhilekoa

- Akordeetan gehiago sakontzea gitarraren mastil osoan eroso aritzera iritsiz.
- Erritmo bereziagoak eta arpegio teknika lantzea.
- Eskala ezberdinak ezagutuz inprobisazioa sustatzea.
- Kantuen gitarra akordeak moldatzea akonpainamenduak hobetzeko.

3. Hiruhilekoa

- Kantuak ateratzen saiatzea.
- Gitarra jotzeko teknika bereziagoak aurkeztea, afinazioak, armonikoak, gitarra elektrikoko teknikak...

Irakaslea

- Prokulturrako irakasle taldea.

Nori zuzendua

Helduak.

Ikasleak eraman beharreko materiala

Gitarra bat. Boligrafo bat eta karpeta bat apunteak gordetzeko.